

**2022KO BERARIAZKO LEKUALDATZE-LEHIAKETAREN BEHIN BETIKO EBAZPENAREN ONDORIOZKO LANPOSTU-UZTE ETA LANPOSTU-JABETZEI BURUZKO JARRAIBIDEAK**

2022ko ekainaren 30ean argitaratuko da BOEn eta EHAAn (AGINDUA, 2022ko ekainaren 1ekoa), Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuarena, martxoaren 16ko Aginduaren bidez deitutako Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetarako, hizkuntzagatik eta/edo lanpostuagatik bereziturik dauden lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketa behin betiko ebazten duena.

Indarrean dagoen legeria betetzea eta karrerako funtzionarioak lekuz aldatzeak eta bitarteko funtzionarioak lanpostutik kentzeak lantokiko zerbitzu-premietan sor ditzakeen disfuntzioak bateratze aldera, lekualdatze-lehiaketan lortutako lanpostura eta dotaziora egingo da esleipena, jarraibide hauei jarraituz:

1. Funtzionario titularrak.

Destinoa lortu eta zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo familiakoak zaintzeko borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek, baldin eta lehiaketa honetan aipatzen diren kidego edo eskaletako batean ere sartzen ez badira, **2022ko uztailaren 1ean, ostirala**, utziko dute lanpostua.

Lortutako destino berriaz jabetzeko:

- Lanpostua utzi eta hurrengo hiru egun baliodunen barruan, funtzionarioak herriz aldatzen ez badu.
- -Hurrengo zortzi egun baliodunen barruan, Autonomia Erkidegoaren barruan udalerriz aldatzea badakar.
- Hurrengo hogeit hamar egun baliodunetan, autonomia-erkidegoa aldatzen bada, Kanarietako Autonomia Erkidegoa, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa, Ceuta hiria eta Melilla hiria izan ezik, horietan hilabetekoa izango baita.
- Plaza baten esleipendunak lanpostuaz jabetzearekin batera zerbitzu aktibora itzultzea lortzen badu, lanpostuaz jabetzeko epea hogeit hamar egun baliodunekoa izango da, eta agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera zenbatu beharko da.

2. Bitarteko funtzionarioak.

Esleitutako plazak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioek titularra lanpostuaz jabetu aurreko egunean utziko dute lanpostua.



3. Zerbitzu-eginkizunak.

Lanpostua zerbitzu-eginkizunetan betetzen ari diren funtzionarioen kasuan, lanpostuaz jabetzeko epeei dagokienez, "Funtzionarioaren herria" izango da zerbitzuak benetan ematen ari direna.

4. Oro har.

- Destinoa lortzen duen funtzionario titularrak, argitaratzen den egun berean, Justizia Administrazioko Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, **personal_jus_provision@euskadi.eus** helbide elektronikoaren bidez, lortutako lanpostuaz jabetzeko data.

- Funtzionario titularrak lanpostuaz jabetzeko egunaren bezperan Justizia Administrazioko Zuzendaritzak formalizatuko du lehiaketan esleitutako lanpostuak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioen kargu-uztea, bete behar badituzte, azken hori oporretan, baimenetan edo lizentzietan egon ala ez.

- Lekualdatze-lehiaketan plaza esleitu eta lizentzia edo baimena duten funtzionarioek, euskara ikasteko liberazioak eta liberazio sindikalak izan ezik, lizentzia amaitu eta hurrengo egun baliodunean utziko dute lanpostua.

Euskara ikasteko liberazioen eta liberazio sindikalen kasuan, lizentziarik hartu ez den gainerako kasuetan bezala utziko da lanpostua.

Aurreko destinoan baimendutako baina hartu gabeko lizentziak eta baimenak baliogabetu egingo dira.

- Lanpostua uzten den destinoari dagokion EATan egin beharko dira kargu-uzteak, azken orduan. Lanpostuaz jabetzeko lehen ordua destino berriari dagokion EATn izango da.

Azken xedapena: denbora-eraginkortasuna.

Jarraibide hauek lekualdatze-lehiaketa honetan izango dituzte ondorioak.